



Fundación "la Caixa"

# *Gizarte Deialdiak lurraldeka, 2022*



*Orain, zugandik hurbilago*

**Gizarte Ekimeneko Proiektuei  
Laguntzeko Programa**

# Gizarte erakundeen eskutik, *premia* handia dutenei *laguntzeko*

Gizarte Ekimeneko Proiektuei Laguntzeko Programa duela 20 urte baino gehiago sortu zen, **hirugarren sektoreko erakundeei** beren proiektuak garatzen **laguntzeko**.

**Urteroko deialdien** bidez, pertsona eta kolektibo ahulenen bizi kalitatea hobetzeko ekimenak babesten ditu programak, eta, horrela, aukera berdintasuna eta gizarte eraldaketa bultzatzen ditu.

Era berean, "la Caixa" Fundazioaren gizarte esparruko **jarduera ildo propioak indartu eta osatzen ditu**, plan estrategikoaren eta Nazio Batuen Agendan jasotako Garapen Iraunkorreko Helburuen arabera.

2022an, **berrikuntza garrantzitsuak izango ditugu Gizarte Deialdietan**: erkidegoen eta hiri autonomoen araberako antolaketa berriari esker, egoera ahulean dauden pertsonengandik eta lurralde bakoitzeko irabazi asmorik gabeko erakundeetatik gertuago egongo gara, gure gizartean sortzen ari diren beharrei erantzuten jarraitzeko.

*Elkarrekin egia* bilaka ditzakegu



**GARAPEN  
JASANGARRIKO  
HELBURUAK**

# 2022ko berritasunak



## Lurraldekako deialdiak

Lurralde mailako 18 deialdi berri egingo ditugu: deialdi bat autonomia erkidego bakoitzeko eta beste deialdi bat bi hiri autonomoetarako.

### JARDUERA EREMUAK:

Lurraldekako deialdi bakoitzak 6 jarduera eremu izango ditu:

- Adineko pertsonak eta zahartzetik eratorritako erronkak
- Desgaitasuna eta nahasmendu mentala duten pertsonak
- Osasunaren arloa humanizatzea
- Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako borroka
- Gizarteratzea eta laneratzea
- Kulturartekotasuna eta gizarte ekintza





## Estatuko deialdiak

Landa eremuko gizarte ekintzako eta nazioarteko lankidetzako deialdiak estatu mailan egiten jarraituko dugu.

### Gizarte ekintza landa eremuan

Helburua da 10.000 biztanletik beherako udalerrietan proiektuak sustatzea, bertakoen lurralde ezaugarrietara eta gizarte premietara egokituta, bizi baldintzak hobetzeko eta aukerak sortzeko gizarte bazterkeriako arriskuan dauden pertsonentzat.

#### JARDUERA EREMUAK:

- Autonomia pertsonala eta arreta zahartzeari, desgaitasunari eta gaixotasunari
- Haurrak eta gazteak
- Garapen soziolaborala
- Tokiko komunitatea eta gizarte kohesioa

### Nazioarteko lankidetzak

Deialdi honen helburua da Afrikako, Asiako eta Latinoamerikako herrialdeetan pobrezia eta desberdintasunen aurka borrokatzen laguntzea, pertsona kalteberenen bizi baldintzak hobetuko dituzten proiektuen bidez.

#### JARDUERA EREMUAK:

- Garapen sozioekonomikoa
- Osasuna hobetzea
- Hezkuntza eta prestakuntza sustatzea



## Indarrean dauden hitzarmenak

Deialdien antolaketa berrirako trantsizioa errazteko, Gizarte Ekimeneko Proiektuei Laguntzeko Programaren 2021eko deialdietan hitzarmena indarrean duten erakundeak eta ordezkariak aurkeztu ahal izango dira 2022an. Horretarako, 2021ean emandako laguntzaren % 50 justifikatu beharko dute, gutxienez.





## 2022ko egutegia

### LURRALDEKAKO DEIALDIAK:

- **Andaluzia:** maiatzaren 31tik ekainaren 23ra
- **Aragoi:** martxoaren 1etik 24ra
- **Kanariak:** maiatzaren 3tik 26ra
- **Kantabria:** martxoaren 1etik 24ra
- **Gaztela-Manxa:** irailaren 6tik 29ra
- **Gaztela eta Leon:** irailaren 6tik 29ra
- **Katalunia:** urriaren 4tik 27ra
- **Madrilgo Erkidegoa:** otsailaren 1etik 24ra
- **Nafarroako Foru Komunitatea:** irailaren 6tik 29ra
- **Valentziako Erkidegoa:** martxoaren 29tik apirilaren 28ra
- **Extremadura:** maiatzaren 3tik 26ra
- **Galizia:** martxoaren 1etik 24ra
- **Balearrak:** irailaren 6tik 29ra
- **Errioxa:** maiatzaren 3tik 26ra
- **Euskal Autonomia Erkidegoa:** martxoaren 1etik 24ra
- **Asturias:** martxoaren 29tik apirilaren 28ra
- **Murtzia:** martxoaren 29tik apirilaren 28ra
- **Ceuta eta Melilla hiri autonomoak:** martxoaren 1etik 24ra

### ESTATUKO DEIALDIAK:

- **Gizarte ekintza landa eremuan:** maiatzaren 17tik ekainaren 9ra
- **Nazioarteko lankidetzak:** apirilaren 5etik maiatzaren 5era



**Kalteberatasun egoeran dauden pertsoneri zuzendutako  
gizarte proiektu bat baduzu, zuri laguntzeko prest gaude**

Kontsultatu hemen berritasun guztiak:  
**[fundacionlacaixa.org/convocatorias-sociales](https://fundacionlacaixa.org/convocatorias-sociales)**

**Informazio Zerbitzua:**

ayudassociales@fundacionlacaixa.org

900 223 040

Astelehenetik ostiralera, 9:00-17:00

[www.fundacionlacaixa.org](http://www.fundacionlacaixa.org)



Fundación "la Caixa"